

EUSKARA ESKORLATZAN

Eskorlatzako bizkera

Eskorlatza Gipuzkoako Debagoieneko eremu administrati-boan kokatuta dago, Leintz Gatzaga, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Oñati, Elgeta eta Antzuolarekin batera. Fisikoki Gipuzkoan kokatuta dagoen arren, Bonapartek XIX. Mendean egindako Euskal Herriko euskalkiei buruzko mapan, bizkaieraren eremuan kokatu zituen Debarroko herriak Itziar, Deba, Mutriku eta Mendaro izan ezik beste guztiak. Beraz, Eskorlatza ere bizkaieraren eremuan kokatzen da, gaur egun mende-baldeko euskalkia deitzen den horretan. Debarroa, baina, Koldo Zuazok 1999an argitaratutako “Deba ibarreko euskera” liburuan hiru hizkuntza eremutan banatzen du:


1. Debagoiena:

- a. Leintz-Aramaiokoa: Gatzaga, Eskorlatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Aramaio (Oleta auzoa izan ezik)
- b. Oñatikoa

2. Debaerdikoa:

- a. Antzuola-Begarakoa
- b. Eibar aldekoa: Eibar, Zaldibarko Eitzaga auzoa, Ermua, Soraluze eta Elgeta (Ubera eta Angiozar auzoak barne).

3. Debabarrena: Elgoibar, Mendaro eta Mutriku



Jakina denez, mendebaldeko euskalkia eta euskara batua oso hizkuntza eredu desberdinak dira, euskara batua erdialdeko euskalkian oinarrituta osatu baitzen. Orain, euskara batua erabat errotuta dago esparru guztietara: komunikabideak, ikastetxeak, aisialdiko kultur eskaintza,... horregatik euskal-


kiak, oro har, ahulduta ageri dira eta Debagoienean, hizkuntza eredua hain desberdina denez, bereziki nabaritzen da bertako euskalkiak berezko esparrurik gabe egiten duela aurrera. Hurrengo urteetako erronka, beraz, euskalkiaren transmisioan behar bezala eragitea izan beharko da ahozkoari lehentasuna emanez, euskalkien berezko esparrua hori baita. Eta bertako euskalkia indarberritu dadin eta zuzentasunez erabili dadin, ondorengo urteetan zuzenean eragin beharko litzateke bertako familia euskaldunetan, ikastetxeetan eta aisialdian.

Euskararen ezagutza Eskoriatzan

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 1981az geroztik egin-dako erroldetan biztanleen hizkuntza gaitasunari buruzko galderak sartu dira. Horri esker, EAEko biztanleen hizkuntza gaitasunaren berri jakiteko aukera izan dugu orduz geroztik, bost urtean behin egin diren erroldako inkesten ondorioz. Beraz, azken hogeitaz euskararen ezagutzaren datuak batuta ditugu. Hona hemen eskoriatzarren hizkuntza gaitasunari buruzko datu orokor batzuk labur-labur.

HIZKUNTZA GAITASUNAREN BILAKAERA

	1981	1986	1991	1996	2001
Euskaldunak	47,8	50,4	52,1	56,2	59
Ia euskaldunak	18,2	9,9	11,8	11	15
Erdaldunak	34	39,7	36,1	32,8	26




Datuok begiratuta, ikus dezakegu euskaldun kopurua %10 igo dela azken hogeitun urteetan eta erdaldun elebazarren kopuruak %8 egin duela behera.

Debagoiena osatzen duten gainontzeko udalerriekin konparatzen badugu, Eskoriatzak bere herritarren hizkuntza gaitasunari buruzko datuetan Arrasateren antza hartzen du gehiago, mugakide dituen Aretxabaleta eta Leintz Gatzagarena baino, izan ere bi udalerri horiek euskaldun kopuru dezente handiagoa baitute (%65 eta %77 hurrenez hurren).

Euskararen erabilera Eskoriatzan

Eskoriatzan Euskararen Kale Erabileraren Neurketa osoa 2003. urtean egin zuen SEI elkarteak Eskoriatzako Udalak eskatuta. Neurketa horren arabera kaleko erabilera 2003ko apirilean %29,9koa izan zen eta neurtutako hiztun kopurua 816 izan ziren, hau da herritarren %20,76.

Esandako moduan, 2003koa izan zen herri osoan egindako lehenengo neurketa, baina aurrerago ere Eskoriatzako Udalak eskatuta egin ziren neurketa orokorrak, herriaren erdigunea bakarrik neurtu zutenak (Euskal herriko neurketa orokorrak, 1997an eta 2001ean). Beraz hiru urte horietako erdiguneko neurketak alderatuta hauxe da emaitza:



Ikusten denez, sei urtean beherakada izugarria izan da. Dena den, datu hauek neurketa modu berdinean egin ez direnez, ez dira erabat konparagarriak, baina adibide gisa balio dezakete. 2005. urtean egingo du Udalak berriro 2003. urtean egindako neurketa berbera, beraz, orduan egingo dugun konparaketa errealagoa izango da.

Egungo euskararen azpiegitura Eskoriatzan

Gaur egun Eskoriatzan euskararen erabilera bultzatzeko eta bermatzeko azpiegitura herriko ikastetxeek, elkarteek eta erakundeok osatzen dugu.

Herriko ikastetxeak Luis Ezeiza herri ikastetxea eta Arizmendi ikastola dira. Luis Ezeizak HH eta LH eskaintzen ditu eta Arizmendi ikastolak bi gune bereizi ditu: batetik, Almen gunea HH, DBH eta Goi Batxilergoko hezkuntza eskaintzen dituena, eta bestetik Jose Arana gunea, HH eta Umezaintza zerbitzuak eskaintzen dituena. Esan beharrik ez dago, ikastetxeak herriko gazteenen euskalduntzea lortzeko eta euskaldun gisa gizarteratzeko tresna baliagarriak direla.

Bestalde, herri ekimenetik sortuta, 90. hamarkadan Axtroki euskara taldea sortu zen. Gaur egun Axtroki Debagoieneko euskara elkartearen Debagune taldearen eta Euskal Herriko euskara elkartearen Topagunea Federazioaren kide da. Axtrokiren helburua Eskoriatzan herritarren euskararenganako sentsibilizazioa bultzatzea eta euskararen normalkuntzarako ekintzak sortzea da. Besteak beste, urtero antolatzen ditu zenbait kultur ekitaldi eta ikastaro, eta berezko euskal ohiturazkoak diren jaiak berpizteko ekintzak. Horrez gain, 3-12 urte bitartekoentzako ludoteka zerbitzua eskaintzen du urte guztian zehar, astelehenetik ostiralera, arratsaldeetan. Ludotekan zerbitzu osoa euskara hutsean eskaintzen da, modu horretara Eskoriatzako haurrek euskara modu formalean ikastetxean ikasteaz gain, modu informalean erabiltzeko aukera daukate ludotekan.

Helduen euskalduntze eta alfabetatzeari dagokionez, berriz, Leintz Udal Euskaltegia Mankomunitatea daukagu. Mankomunitate hau 1985. urtean sortu zen Eskoriatza eta Aretxabaletako Udalen artean. 2003-2004 ikasturtean 120 ikasle daude euskara ikasten, eta horietarik 51 eskoriatzarrak dira. Mankomunitate honen egoitza nagusia Aretxabaletako udalerriaren badago ere, Eskoriatzan 2000. urtean zabaldu zen Euskal Txokoa eta han ditu bere gelak euskaltegiak, Axtroki euskara taldearekin batera.

Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI fakultatea ere Eskoriatzan kokatuta dago. Lehen Irakasle Eskola izan zenak, gaur egun toki guztietako ikasle asko ekartzen ditu gure herri-

ra eta datozen horiek, batez ere, ikasle euskaldunak dira eta herriari euskal giroa ekartzen diotenak. Beharbada herria eta unibertsitatearen arteko elkarlanak, baita euskalgintzaren arloko elkarlanak ere, sendotu beharra dauka. Baina, apurka-apurka egin beharrekoa da hori ere.

Eta azkenik Udal Euskara Zerbitzua ere aipatu behar da. Zerbitzu honek bi dimentsio nagusi ditu: batetik, Udalaren Euskara Normalkuntza Plangintza eta bestetik, udalerriaren euskara normalkuntza. Udalaren Euskararen Normalkuntzarako 1996. urtean Leintz Udal Euskaltegiko langile bat hasi zen udal-etxean lanean. Udalerriaren euskara normalkuntzan hiru aspektu nagusi lantzen dira:

1. Euskararen ondorengoetaratzea: Euskararen transmisioan eragitea, euskara belaunaldiz-belaunaldi eta etenik gabe ager dadin.
2. Euskararen erabilera: Euskarazko zerbitzu eskaintza eskolatik beste erabilera-eremuetara ere zabaltzea, euskarari balio funtzionala erantsiz.
3. Euskararen elikadura: Euskara gaurkoa, aberatsa eta erabilgarria izatea.

Euskalgintzan dihardugun elkarte, talde eta erakundeok elkarlanean jardutea ezinbestekoa dugula badakigu, horregatik azken urteotan elkarlanerako sareak sortzen eta denon indarrak batzeko ahaleaginean dihardugu.

Mari Karmen Arrieta